

**EUSKO JAURLARITZAKO SAIL
ETA ERAKUNDE AUTONOMIADUNETAN
LANGILE ETORRI BERRIEI**

**HARRERA LINGUISTIKOA
EGITEKO PROTOKOLOA**

Euskadi, auzolana

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

**EUSKO JAURLARITZAKO SAIL
ETA ERAKUNDE AUTONOMIADUNETAN
LANGILE ETORRI BERRIEI**

**HARRERA LINGUISTIKOA
EGITEKO PROTOKOLOA**

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO


KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2019

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzaren *Bibliotekak* sarearen katalogoan aurki daiteke: <http://www.bibliotekak.euskadi.eus/WebOpac>



Argitaraldia

1.a, 2019ko urtarrila

Ale-koprua

100 ale

©

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Kultura eta Hizkuntza Politika Saila

Internet

www.euskadi.eus

Argitaratzailea

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián, 1 • 01010 - Vitoria-Gasteiz

Diseinua

eta maketazioa
ekipoPO

Lege-gordailua

VI 68-2019

Aurkibidea



Sarrera	7
1. Helburua.....	9
2. Harrera linguistikoa egiteko erabiliko diren hizkuntzak	9
3. Iraupena	9
4. Harrera linguistikoa egiteko protokoloaren urratsak eta edukiak.....	11
4.1. Langile berria datorrela jakinarazi	11
4.2. Etorri berria hartzea. Zuzendariaren egitekoa.....	11
4.3. Etorri berria hartzea. Zerbitzuburuaren egitekoa	12
4.4. Etorri berria hartzea. Tutorearen egitekoa	13
4.5. Euskara teknikariaren egitekoa.....	13
5. Harrera linguistikoaren ebaluazioa	15
Eranskina.....	16



Eusko Jaurlaritzan datozen 10-15 urteotan langile berri asko etorriko direla aurreikusten da; aurreikusten da, baita ere, langile berri horietatik gehienak elebidunak izango direla, eta gai izango direla hizkuntza ofizial bietan lan egiteko. Etorrera hori aukera paregabea izan daiteke azken hamarkadan sustatzen ari garen euskararen erabilera indartzeko, eta batez ere, lan-hizkuntzaren eremuan aurrerapauso sendoak emateko.

Langile hasiberrien joera naturala izango da dagoen egoera linguistikora lerratzea; horiek horrela, ikasitakoa erabiltzeko aukerarik ez badute, denbora laburrean galdu dezakete euskarazko gaitasuna. Gizarteak eta erakundeek ahalegin handia egin dute belaunaldi hori euskalduntzeko, eta ezin dugu indargune hori alferrik galtzen utzi. Hartara, oinarriak jarri beharko genituzke pertsona horiek Eusko Jaurlaritzan lanean hastearekin batera aukera izan dezaten euskaraz ere lan egiteko.

Erakundearen kudeaketa orokorraren barruan txertatu behar da langile etorri berriei harrera egitea, eta harrera horretan hizkuntza ofizialen kudeaketaren berri ematea. Azken batean, kudeaketa orokorraren zati da, berez, heldu berria den langileari informazioa ematea: informazio orokorra, batetik, eta hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideei buruzkoa, bestetik.

Protokolo honetan oinarrizko urrats batzuk baino ez ditugu aurreikusi, eta langile berrien harreran euskararen normalizazioaren ikuspegia txertatzeari begira dago prestatuta; hau da, ez da aipatzen gainerako zeharkako gaiei dagokien informazioa. Nahi izatera, gai horiek ere tarteka litezke.

Amaitzeko, ohar bat: protokolo hau Eusko Jaurlaritzako sail eta erakunde autonomiadunetako egitura funtzional eta organikoari begira eginda dago. Jaurlaritzatik kanpoko erakundeek erabili nahi izango balute, euren egitura eta egoerara egokitu beharko lukete.



1. Helburua

Prozedura honen helburu nagusia da Eusko Jaurlaritzara lanera datozen langile berriak jabetzea hizkuntza-irizpide batzuen arabera lan egin behar dutela. Horretaz gain, lankide eta arduradunekin lan-harremanak euskaraz eraikitzea baldintzek horretarako bidea ematen duten esparru eta atal guztietan, eta langilearen jarduna euskararen normalizazioaren alde bideratzea. Azkenik, langileak euskaraz duen gaitasuna ez galtzea, garatzea baizik, praktikaren bitartez.

2. Harrera linguistikoa egiteko erabiliko diren hizkuntzak

Ahal den guztietan harremana euskaraz izango da. Hala ere, harreraren momentu bakoitzean parte hartzen duten pertsonak euskaraz hitz egiteko gai ez badira, gaztelaniaz hitz egingo dute, baina bereziki nabarmenduko dute normalizazioak Eusko Jaurlaritzan duen garrantzia, eta aukera dagoen guztietan, euskaraz aritzera gonbidatuko dute langilea, bai ahoz, bai idatziz. Era berean, harrera linguistikoaren helburuarekin koherentzia mantentze aldera, ezinbestekoa da harrera egitean bakarrik ez, aurrerantzean ere euskaraz egitea.

3. Iraupena

Harreraren iraupena hiru astekoa izango da, langile berriari harrera linguistikoa egiten zaionetik amaierako inkesta egiten zaion arte.



4. Harrera linguistikoa egiteko protokoloaren urratsak eta edukiak

4.1. Langile berria datorrela jakinarazi

Zerbitzu Orokorretako arduradunak (pertsonal arloburuak) zuzendariari, arduradunei, lankideei eta euskara teknikariari jakinaraziko die noiz hasiko den lanean langile berria, eta eskatuko die protokoloa abian jartzeko, bakoitzak egin behar duena egin dezan.

4.2. Etorri berria hartzea. Zuzendariaren egitekoa

Zuzendariak lankide guztiei jakinaraziko die langile berria datorrela zuzendaritzara eta lehenengo hitza euskaraz egiteko gogoraraziko die, euskarazko harremanak hasieratik sor daitezen. Gainera, tutore bat izendatuko du lehenengo hiru asteetan laguntzeko. Behar-beharrezkoa da tutoreak euskaraz jakin eta egitea, lanpostuaren zereginak ondo ezagutzeaz gain.

Zuzendariak etorri berria hartuko du eta, hizkuntzen kudeaketari dagokionez, honakoa azalduko dio:

- Sailak Plan Estrategikoa onartu duela 2018-2022 epealdirako, eta Zuzendaritzak urtero onartzen duela bere kudeaketa plana Sailaren amaierako helburuak betetzeko.
- Planak eginkizun batzuk jarri dizkiela Sailari eta zuzendaritza guztiei:
 - VI. Plangintzaldiaren amaieran, herritarren hizkuntza-eskubideak % 100 bermatu behar dituzte.
 - VI. Plangintzaldiaren amaieran lan-hizkuntzarekin lotutako adierazleetan, gutxienez, 15 puntu egin behar dute gora.

Zuzendariak langile berriari planaren partaidea dela sentiaraziko dio, eta laguntza guztia eskainiko dio helburu horiek lortzeko ahalegindu dadin. Bukatzeko, adieraziko dio aurrerago jasoko duela informazio xeheagoa.

4.3. Etorri berria hartzea. Zerbitzuburuaren egitekoa

Zerbitzuburuak etorri berria hartuko du, eta jarraian:

- Hala eskatzen duten herritarrekiko ahozko eta idatzizko komunikazioak % 100 izango dira euskaraz.
- Ahozko eta idatzizko barne-harremanak zein hizkuntzatan egingo dituen azalduko dio, Planean adostutakoaren arabera.
- Ahozko eta idatzizko kanpo-harremanak (beste erakunde eta administrazioekin izan ohi direnak) zein hizkuntzatan egingo dituen azalduko dio, Planean adostutakoaren arabera.
- Saileko Euskara Plan Estrategikoaren barruan, Zuzendaritzaren urteko kudeaketa plana aurkeztu eta azalduko dio.
- Plana aurrera eramateko, Zuzendaritzako gainontzeko langileek hartu dituzten konpromisoen berri emango dio.
- Era berean, etorri berriari aukera emango dio konpromiso berriak hartu, ekintza berriak proposatu eta ekarpenak egiteko.
- Baliabide informatikoak euskaraz instalatuko zaizkiola adieraziko dio.
- Ahal dela, laneko prestakuntza euskaraz jasoko duela azalduko dio.
- Itzulpenetikiko menpekotasuna saihestu eta itzulpen-kopuru ikaragarria murrizteko, dokumentuak euskaraz sortzeko eskatuko dio.

Ondoren, zerbitzuburuak lankideak eta tutorea aurkeztuko dizkio.

4.4. Etorri berria hartzea. Tutorearen egitekoa

Erreferentziazko lankidea izango da langile berriarentzat hiru astetan zehar. Epe horretan langile berriak egin beharreko lana ondo egiteko laguntza eta babesak eskainiko dizkio.

4.5. Euskara teknikariaren egitekoa

Saileko euskara teknikariak hizkuntza ofizialen erabilerarekin lotutako hainbat zalantza argituko dizkio, horien artean:

- Langile etorri berriaren hizkuntza-gaitasuna neurtuko du. Bere hizkuntza beharrak aztertu, eta hizkuntza-prestakuntzarako dituen aukerak azalduko dizkio.
- Euskaraz lan egiteko baliabideen (Euskalterm, hiztegi terminologikoak) eta lan-tresnen berri emango dio (e-baliabideak: IDABA, Dudanet, ELET, etab.)
- Langileak sortuko dituen euskarazko idatziak zuzentzeko laguntza behar izanez gero, dituen aukeren berri emango dio: Idazlagun zerbitzua, etab.
- Dokumentu estandarizatuak nondik eta nola eskuratu ditzakeen erakutsiko dio.
- Materialak eskuratuko dizkio etorri berriari: Saileko Plan Estrategikoa, Zuzendaritzako Kudeaketa Plana, Hizkuntza Ofizialak Erabiltzeko Irizpideak eta bestelakoak: baliabideen zerrenda, dokumentu estandarizatuak, etab.



5. Harrera linguistikoaren ebaluazioa

Harrera linguistikoa behar bezala egin dela ziurtatzeko eta eraginik duen jakiteko, jarraipena eta ebaluazioa egingo zaizkio harrera-prozesuari. Horiek horrela, hilabete pasa ondoren, inkesta egingo zaio langileari. Eranskinean dago inkesta-eredua.

Asebetetze inkestaren emaitzak jaso eta aztertu egingo dira. Emaitzek prozesuan dauden indargune eta ahuleziak agerian utziko dituzte, eta aukera emango dute protokoloa egokitzeko. Emaitzen argitan, arduradunek neurri osagarriak edota zuzentzaileak proposatu eta erabakiko dituzte.

Eranskina

HARRERA LINGUISTIKOAREN EBALUAZIO-GALDETEGIA

Eusko Jaurlaritzan lanean hasi zinenean egin zizuten harrera linguistikoaren inguruan duzun iritzia jaso nahi dugu. Eskerrik asko emango diguzun laguntzagatik.

Izen-abizenak: Zerbitzua:

Lanpostua:..... Zuzendaritza:

Saila / Erakundea:

1. Saileko Euskara Plan Estrategikoaren eta Zuzendaritzako Euskara Planaren inguruko informazioa jaso duzu? 1.1. Materiala eman dizute?	Bai <input type="checkbox"/> Ez <input type="checkbox"/> Bai <input type="checkbox"/> Ez <input type="checkbox"/>
2. Hizkuntza-irizpideak azaldu dizkizute? 2.1. Materiala eman dizute?	Bai <input type="checkbox"/> Ez <input type="checkbox"/> Bai <input type="checkbox"/> Ez <input type="checkbox"/>
3. Argi azaldu dizute zein hizkuntza erabili behar duzun kasu hauetan? 3.1. Herritarrekiko harremanetan 3.2. Barne funtzionamenduari dagozkion harremanetan 3.3. Beste administrazioekiko harremanetan	Bai <input type="checkbox"/> Ez <input type="checkbox"/> Bai <input type="checkbox"/> Ez <input type="checkbox"/> Bai <input type="checkbox"/> Ez <input type="checkbox"/>
4. Zuzendaritzako Euskara Planaren inguruko informazioa jaso duzu?	Bai <input type="checkbox"/> Ez <input type="checkbox"/>
5. Aukera eman dizute zeuk ere konpromiso linguistikoak har ditzazun?	Bai <input type="checkbox"/> Ez <input type="checkbox"/>
6. Aukera eman dizute zeuk ere ekintzak proposa ditzazun?	Bai <input type="checkbox"/> Ez <input type="checkbox"/>
7. Hizkuntza-prestakuntzarako eta trebakuntzarako aukerak azaldu dizkizute?	Bai <input type="checkbox"/> Ez <input type="checkbox"/>
8. Hizkuntzari buruzko zalantzak nola, non, norekin argitu ahal dituzun azaldu dizute?	Bai <input type="checkbox"/> Ez <input type="checkbox"/>
9. Zein hizkuntzatan dituzu harremanak zure lankideekin?	<input type="checkbox"/> Beti edo ia beti gaztelaniaz <input type="checkbox"/> Gaztelaniaz euskaraz baino gehiago <input type="checkbox"/> Euskaraz gaztelaniaz bezainbeste <input type="checkbox"/> Euskaraz gaztelaniaz baino gehiago <input type="checkbox"/> Beti edo ia beti euskaraz
10. Zein hizkuntzatan dituzu harremanak zure zerbitzuburuarekin?	<input type="checkbox"/> Beti edo ia beti gaztelaniaz <input type="checkbox"/> Gaztelaniaz euskaraz baino gehiago <input type="checkbox"/> Euskaraz gaztelaniaz bezainbeste <input type="checkbox"/> Euskaraz gaztelaniaz baino gehiago <input type="checkbox"/> Beti edo ia beti euskaraz
11. Zein hizkuntzatan dituzu harremanak zure zuzendariarekin?	<input type="checkbox"/> Beti edo ia beti gaztelaniaz <input type="checkbox"/> Gaztelaniaz euskaraz baino gehiago <input type="checkbox"/> Euskaraz gaztelaniaz bezainbeste <input type="checkbox"/> Euskaraz gaztelaniaz baino gehiago <input type="checkbox"/> Beti edo ia beti euskaraz
12. Harrera linguistiko honek eragina izango du zure jokabide linguistikoetan (zure lana euskaraz egiteko, zure lankideekin euskaraz hitz egiteko)?	<div style="display: flex; justify-content: space-around; align-items: center;"> 12345678910 </div> <div style="display: flex; justify-content: space-around; align-items: center;"> <input type="checkbox"/><input type="checkbox"/><input type="checkbox"/><input type="checkbox"/><input type="checkbox"/><input type="checkbox"/><input type="checkbox"/><input type="checkbox"/><input type="checkbox"/><input type="checkbox"/><input type="checkbox"/> </div> <p style="font-size: small; margin-top: 5px;">Harrera linguistikoaren eragina 0tik 10era bitarteko eskalan baloratu behar duzu: zero «batere eraginik ez» eta hamar «erabateko eragina» izanik.</p>

Oharrak edota iradokizunak



EUSKARALDIA.

